

ZIRTAK

Patxi Zubizarreta

IDAZLEA

## Autofikzioa

**E**man dezagun, orain dela bi urte, Kutxako antzerki saria egokitu zitzaizula eta albistea pozarren eta alegera hartu zenuela. *Obe deseginak* lana esperimentazio gisara idatzi zenuen eta 20.000 euroko sariak bulkada ezin hobea eskaini zizun. Sarien ekitaldia arranditsua izan zen, Ibarrek, Alkainek, Salvadorrek eta Golden Appel Quartet-ek girotua, baina saridunek –ustez, benetako protagonistek– ezin prestatutako hitz bakanak ere esan; gaitz erdi, hala ere, Luppi edo *El guía del Hermitage* idatzi zuen Morote ezagutzeko parada izan baitzenuen, eta Irati, ipuin arloko irabazlea. Ordurako liburua txukun argitaratua zegoen eta, bestalde, Donostiako Londres Hotele-*ra* gonbidatu zintuzten, leihoa itsasora begira duen gela batera gonbidatu ere. Alabaina, editore bakar batek ere ez zintuen zoriondu –ez naiz antzezlan ohiko bilduma batean argitaratzeaz ari, bai baitakit antzerki liburuak are gutxiago saltzen direla; interesa erakusteaz baino ez naiz ari–; zuzendari edo aktore bakar baten jakinminik menderena ere ez zenuen jaso eta, futxo!, barnealdeko zure hirian ez zenuen liburudenda bakar batean ere liburua ikusi.

Baina eman dezagun, handik urtebetetsura, Patriren deia jaso zenuela ezustean –lehiaketako epaimahaikide eta zure liburuaren hitzaurrearen egilearena–, eta antzerkiko sari nazionalerako zure lana proposatzeak harropuztu egin zintuela, eta liburua itzultzeko Angelen baieztokorekin lasaitua hartu zenuela, ustez bestera, ez baita batere erraza liburu bat taxuz gaztelanaratzea. Itsasorako beste leihobat zabaldu zitzaizun dei harekin, baina Kirmenen sariaren albistea etorri zen eta lagun bat, orokor ustean, zuzen mintzatu zitzaizun: “Aurten ez zaio beste euskaldun bati egokituko, ezta datozen urteetan ere. Narratibakoa ez behintzat”. Eta orduantxe ohartu zinen zu bezala



DANI BLANCO

beste lagun gutxi batzuk ere egongo zirela, zain eta kukuturik, poesia edo haur nahiz gazte lanak besapean harturik.

Eta eman dezagun gero, baina orain dela gutxi, goiz batez *Diario Vasco* hartu, eta bat egin zenuela Unai elkarrizketa batean esandakoarekin: “Liburuetatik ezin da bizi. Lau urte ematen duzu liburua idazten, eta gero salmenten %10 irabazten duzu. Asko saldu-ta, 10.000 euro kobratzen duzu, baina lau urte bizitzeko... Beti ibili behar duzu gauza

asko egiten, hitzaldiak han eta hemen, eta burua galtzen”. Baina zalantzaz beterik, bekokia ilundu zitzaizun hitzok irakurtzean: “Baten batek zuzendu beharko luke idazlearen arazo ekonomiko hori; ez dakit nola. Azken batean, gu herrigintzan ari gara neurri batean, eta hala ere ez daukagu instituzioetatik inongo laguntzarik...”. Eta kasik eskandalizatu egin zinen idazlea kexu agertzen zelako, zergatik eta, futxo!, Lyon eta Dublinera joan behar izan zuelako hitzaldiak eskaintzera: “Batuetan ez dizu bidaiatzeko gogorik ere ematen”.

Baina eman dezagun ez zenuela sumintzeko aukerarik ere izan Madrileko aurrezenbakia zuen telefono zenbaki bat nagusitu zelako zure sakelakoaren pantaila ttipian. Bihotza punpeka hasi zitzaizun 91 hari jarraitzen zion zenbakiarekin, batik bat emakume batek zure izena aipatu zuenean, eta zuk baietz, zu zeu zinela, eta orduan Telefonicako azken uneko oferta baten xehetasunak ematen hasi zen, labur, berehalakoan eskegi baitzenuen. Eta egunkariaren kulturako orrialde pasa etsituan, albiste ñimiño bat topatu zenuen bazter batean: “Paco Bezerra, Literatura Dramatikoko Sari nazionala”. Futxo eta errefutxo! Beharbada Unai –eta lagunak– arrazoi zuen eta literaturatik ezin da bizi; beharbada aspaldian zaude hilik, nahiz eta orain arte jakin ez. ■

« Aurten ez zaio beste euskaldun bati egokituko, ezta datozen urteetan ere. Narratibakoa ez behintzat’. Eta orduantxe ohartu zinen zu bezala beste lagun gutxi batzuk ere egongo zirela, zain eta kukuturik, poesia edo haur nahiz gazte lanak besapean harturik »

